

Gardentasuna eta parte-hartzea.

Gure ustez, kontratuen gauzatzean eta kitapenean suertatzen diren gatazken jatorria proiektuen elaborazioaren hutsunetan datza. Hau da, proiektuak ikerketa sakonik egin gabe edo gizarte-agenteen parte hartzerik gabe gauzatzen dira eta honek iruzurra eta ustelkeria ekartzen ditu. Honez gain, lanak garestitzen ditu eta emaitzek ez dituzte erantzuten biztanleen interesak, ez eta beharrak ere.

Horretarako, azken 8 urteetan egindako 20 kontratu inportanteetan egon diren aldi baterako enpresa-elkarteen (ABEEen) atzean dauden enpresak eta pertsonak identifikatzeko auditoretza egitea defendatzen dugu. Era berean, eraginkortasunaren auditoretza ere defendatzen dugu, jatorriko proiektuaren desbideratzerik egon den jakiteko eta hauen zergatiak, lan osagarrien eta proiektuaren aldaketaren egokitasuna eta zalantzazko salneurri onartuak eta merkatuarenak bat datozen ere bai

Auditoretza hauen emaitzen funtzioan, proiektuen gauzatzearen sistema berriz aztertzea proposatuko dugu eta jatorriko proiektuan ez dauden lanen aleko prezioak sartzera ere bai

Gainera, kontrata-prezio handien zerbitzu publikoen eraginkortasunaren auditoretza ere eskatuko dugu. Eta lau Erakunde Autonomoek eta Udalak berak egindako zerbitzu publikoen eraginkortasuna ebaluatzeko auditoretza ere bai. Auditoretza hauek, besteak beste, hartutako neurrien eragina ere aztertuko dute: lan-bizitzaren eta familia-bizitzaren bateragarritasuna errespetatu den; egoera ekonomikoa, generoa, jatorria, identitate sexuala edo desgaitasuna kontuan hartu gabe, auzotar guztien sarbidea berdintasun-egoeran ematen den.

Auditoretzaren ondorioetan oinarrituta, bide garbiketaren kudeaketari buruzko eztabaida zorrotza zabaltzeko beharra proposatzen dugu eta merkataritza-sozietate pribatuaren ordez udal sozietate publikoa sortzeko aukera aztertzeko ere bai. Era berean jokatu dugu, Udalak, edo udal-sozietateek zuzenean eskaini ahal dituzten gainerako zerbitzuetan, orain kanpora bideratuta badaude ere.

Kontratazioaren txosten teknikoaren erregistro publikoaren sorrera sustatuko dugu.

Gobernu-taldearen aholkulari politikoaren izendapenaren kontra gaude eta oposizio-taldeko aholkulari bana onartuko genuke, gobernu-taldearen baldintza berdinetan oposizioek ezin badute udal teknikarien aholkularitza izan.

Udal aurrekontu parte-hartzaileak eta hiritargoaren iritzia eta proposamenen integritzaileak nahi ditugu,

Auzo-ekimenak eta hauen gauzatzea bideratzeko Herritarren Partaidetzaren Erregelamenduaren sorrera sustatuko dugu.

Langileak hautatzeko epaimahaietan, legeak hala aginduta, teknikariek, eta ez politikariek, osatu behar dituzte. Berdin, Kontratazio Mahaiak eta dirulaguntzak emateko Kide Anitzeko Organoak, izan ere, hauen betekizunak teknikoak dira.

Hirigintzarako eta Hondakin Solidoen Kudeaketarako doako tailer publikoak nahi ditugu auzotarrentzat; horrela, nor bere irizpide garatu ahal izateko.

Udal komunikabideak.

Udal komunikazioa ezin da izan, ez alderdi politiko zehatz batekin lotutako enpresen propaganda, ez eta Getxon bizi garen guztiok ordaindutako asteroko hauteskunde-propaganda. Gure ustez, Udala eta herritarren arteko loturaren islada izan behar du Udal komunikazioak; beraz, herritarrok izan behar dugu eginkizun nagusia udal komunikabideetan.

Era berean, Udaleko Getxo Irratia, Getxoko erakundeen, ikasleen eta era guztietako eragileen parte-hartzeko gunea ikusten dugu; hori koordinatzeko eta, gardentasuna eta adierazpen askatasuna bermatzeko, Kontseiluaren sorrera ere sustatuko dugu,

Gizarte ongizatea.

Bizitza duinaren eskubidearen alde gaude. Hori dela eta, asistentzia zerbitzu publikoak, gure ustez, eskubideak dira, eta ez, karitatetik hurbil dauden banakako laguntzak. Horretarako, segimendu eraginkorra egingo dugu premia bakoitza eta guztiak (langabezia, mendetasuna, adindua, genero-indarkeria...) estali ahal izateko.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua sustatu behar dela uste dugu. Bere eginkizuna, adinduen eta premia berezidun pertsonen etxeko zerbitzua eta bizitza kalitatearen hobekuntzaz gain, askotan ere, estali beharreko premien alerta baita.

Gure gizartea gobernatzen duten arauen bidegabekeriaren ondorioz, gero eta getxotar gehiago daude gizarte-bazterketako zorian. Hori dela eta, udalerriko desberdintasun sozio-ekonomikoei aurre egiteko, jakien bilketako sareen, jantoki sozialen eta aterpetheen sorreran sartu behar du Udalak

Ekonomia iraunkorra eta enplegua.

Ekonomia iraunkorra berreskuratzeko sareak eta proiektuak sustatu behar ditu Udalak; horretarako, udal baliabideak eskaini, administrazio-izapideak erraztu eta diru-laguntzak eta hobari fiskalak eskaini egingo duelarik.

Sustatu beharreko proiektuak:

Onura sozialeko kooperatibak

Gizarte-bazterketako zorian edo estu bizi diren langileek sustatutakoak

Getxon egindako produktuen banatu edo balio erantsia eman egiten dutenak

Eskulangintzak berreskuratzen dituztenak.

Ziurtagiri ekologikoak edo gizarte onurako ziurtagiriak bermatuak.

Auzoetan inplikaturakoak, auzoetako bizimodua dinamizatzen laguntzen dutenak

Energiaren aurrezteak edo autogestioa sustatzen dituztenak, bai udal, bai erkidego mailan.

Udal autosufizientzia energetikoa dakartenak

Ekonomia solidarioa, kooperatibak, gizarte-arreta, birgaitzeko proiektuak eta hiriko mantentze lanak sustatzen dituztenak.

Hurbiltasun-kulturara bideratuak (liburudendak, elkargune kulturalak, argitaletxeak...)

Lehenengo sektorekoak, HAPOn dagokion babesak izan behar dutenak.

GUK Programa. 2015 /05/04

Getxon energia garbiak eta eraginkortasun energetikoa garatzen dituztenak.
Auzoetako lan-poltsak enplegatzen dituztenak

Lehenengo sektorea sustatzeko ondoko hau proposatzen dugu:
EKONOMIA SOLIDARIOAREN GUTUNAREN atxikimendua. Eskoletako eta Zahar-etxeetako jantokietan produktuen hornitzaile nagusiak bertokoak izan daitezten.
Astero, nekazaritza-produktuen azoka antolatu bertoko produktuen banaketa errazteko.
Merkatarien tokiko sarea eta tokiko merkataritzaren produktuak etxez etxe banatzeko sare kooperatiboa artikulatu.

Turismo aktibo eta kulturala sustatzeko:
Itsas-ingurune hurbileko espezializazioan sakontzeko aquarium-a sustatu.
Udal eraikin bat prezio merkeko aterpetxe bihurtu. Horrela, mundu osotik ekipaje arina dakarten bidaiariak erakarriko lirake eta esperientzia duen irabazi-asmorik gabeko elkarteren batek kudeatuko luke.

Hirigintza.

Ikusgarritasuna lortu nahi duen hiri-funtzionalismo homogeen eta zurrunen orde, historiaz betetako toki biziak berreskuratu eta pertsonen eguneroko bizitzaren zerbitzuan jarri egin behar dugu. Getxon indarrean dagoen hirigintza planeamendu espekulatiboa berriz aztertzea premiazkoa da, Izan ere, hiri-eredu segregatzailea sustatu eta dentsitate txikiko eraikuntzaren sustapen pribatua dela medio lurzorua agortzea ekarri egiten du.

HAPOn berraztertzeak lurzoru urbanizatuaren oraingo perimetroa blokeatu behar du, plusbalio antzueren aldeko hazkunde mugagabeari amaiera jarri ahal izateko. Horrez gain, oraindik exekutatu ez den lurzoru urbanizagarri guztia urbanizaezin bihurtu behar da, horrela landa- eta natura-inguruneen berreskurapena sustatuko baita, bereziki, ibarretako eta itsasertzeko inguruetan.

“Lurzoru urbanizagarri zero” irizpidearen bidez exekuzio urbanistikoa berbideratu nahi dugu. Horrela, oraingo hiri-sareak bizkortzea eta berreskuratzea izango dira helburu berriak. Horretarako ondoko bi bide hauek garatuko dira: alde batetik, berdegune berri gehiagoren lorpena dela medio, area libreen sistemaren hobekuntza eta gehikuntza; eta beste aldetik, oraingo etxebizitzaren parkea birgaitzea, bai kanpoko isolamendu energetikoan, bai eta bizitegi-unitateen sARBIDE unibertsalaren egokitzapenean ere.

Auzoetako garapen autonomoa eta gaineratzailearen ondorioz, Getxok ez du bere eskalako hiri-parke publikorik. Hori dela eta, HAPOn berraztertzearen helburu nagusietako bat honen hornidura izan beharko du. Eta bere kokapena Iturribarri inguruea, Gobelako eskumako ibarraraino, Bolue hezeguneraino, izan daiteke, Arene kalearen amaieran. Ingurune hau egokia da eta, hiri-sarearen erdigunetik hurbil bait dago, garraio publikoa zuzena Aiboako metro geltokitik eta eskualdeko sARBIDEA ere hurbila, autobiatik, bait ditu.

Eta etxebizitzaren birgaitzearen sustapenerako; hau da, isolamendu energetiko osoa eta sARBIDE unibertsala gauzatzeko, Udalaren eta jabeen erkidegoaren arteko lankidetzaren sistema eratu beharko luke HAPOak. Honen finantzazioa, lurzoru urbanizagarrian urbanizazioak gauzatu ez duen bolumetriaren edo gainerako eraikigarritasunaren kontura egingo da.

HAPOn berraztertzearen partaidetza-prozesuak orain arte izan duen gardentasun eskasaren

GUK Programa. 2015 /05/04

aurrean, benetako prozesu partehartzailea eta getxotar guztiei zabaldua, baztertzerik gabekoa , proposatzen dugu. Honetan, lurzoru-baliabideen diagnostikoa, Getxon egindako lurralde-politika eta bere ondorio sozial eta sektorialak -auzoetan eta Gobelaren arroan- eta zuzkidura-sistema orokorren diagnostikoa edo hornikuntzarena eta hiri-bilbearena aztertuko dira. Diagnostikoan ere, eguneroko bizitzaren kalitatearen ekarpenen ikuspegitik, oraingo gabeziak eta mugak ere analizatuko dira.

Zuhaitzen hiri-ondarearen bilakaeraren diagnostikoa, HAPOri gehitzea defendatzen dugu. Horrela, eta naturaren defendatzaileekin eta hezkuntza-taldeekin sailkatu ondoren, 30 urtetik gorako aleak babestea proposatzen dugu. Era berean, burutu gabeko egikaritze-unitateetan edo onespen partzialetan, zuhaitz historikoen edo interesgarrien katalogoa errespetatu behar izango da.

HAPOk ondoko neurri hauek ere jaso behar izango ditu bere plangintzan: 70 urtetik gorako denden eta ondasunen hiri-ondare historikoaren berreskuratzearen aldeko arreta berezia, telefonia-antena berrien instalazioaren moratoria ez ezik, metro koadroko 0'1 mikrowatt-eko igorpen-muga analizatzeko auditoria ere jasotzea, hiritargoaren babes-maila handia ziurtatzeko telefonia-antena antolatu eta kokatu egiten dituen ikerketa Hirigintza-plangintzan jasotzea. Azken honetan, honako oinarri hauek izango dira kontuan: antena etxebizitzetatik ahalik eta urrunen jartzea, ahalik eta estaldura handiena izatea eta lurzoru publikoan egotea. Honez gain, igorpena etengabe neurtzen duen zaintza-sarearen instalazioa egin behar du Udalak.

Gainera, Ingurunearen eta Osasunaren aldeko eta kutsadura elektromagnetikoaren kontrako Itun sozialean Getxo sartzea proposatzen dugu.

HAPOk ere, Getxoko uraren politika finkatu behar izango du. Eta iraunkortasun-irizpideetan oinarrituta horniduraren eta saneamenduaren zikloaren erregulazioaren bidez, ekosistema ibaitarrak behar duen oreka lortu behar du. Honez gain, eta Ur Partzuergoarekin batera, ur-kontsumoaren gehiegizko kontsumoa (400 litro/biztanle.egun ingurukoa) murrizteko programa integrala egin behar da. Gainera, saneamenduaren euri-sarea eta sare fekala guztiz bereiztu behar dira, egun hiri-bilbearen % 80 baino gehiagotan nahastuta baitaude. Eta Gobela ibaiaren arro osoa zaintzeko, Andra Mariko eta Larrañazubiko bere ibaiadarrak lurzoru babestua eta urbanizaezina izendatu behar dira. Era berean, Gobela ibaira isurtzen duten uren kalitatea gainbegiratzeko ikuskapen periodikoak egin eta baliabide hidrikoak babestu egin behar dira, aparkalekua dela eta, arriskuan dagoen Tosuko akuiferoa, kasu.

Hurrengo lau urteetan Getxon garatuko den autohornikuntza energetikoaren plangintza jaso behar da HAPOn.

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza duen eta emakume arkitektoen kolektiboek iradokitzen duten genero-perspektibaren ikuspegiko hirigintza-jarduerak burutzea eskatzen dugu.

Etxebizitza

Ez da egia gazteak etxebizitzara heltzea "merkatuak" bermatzen duenik, Aldiz, higiezin merkatua jabetza-erregimeneko etxebizitzaren erabilpen bakarraren menpean egon, arrisku espekulatiboaren kaltebera izan, baliabide gutxiko sektoreak sistematikoki baztertu eta etxebizitza-eskubidea hautsi egiten du merkatuak.

GUK Programa. 2015 /05/04

Etxetik kaleratzeko arriskuan dauden familien eta udalerriko gazteen etxebizitza-eskubidea bermatzeko, etxebizitza sozialaren asmo handiko plana proposatzen dugu. Honen finantziarioa, Lurzoruaren eta Hirigintzaren legeak agintzen duen Udalaren Lurzoru-Ondarearen funtsaren bidez egingo da. Gainera, etxebizitza hutsen birgaitzeari lehentasuna emanda eta hiri-eredu trinkoan eta iraunkorrean oinarrituta, alokairu soziala nabarmenki handituko du planak.

Egitasmo hau bai Udalak, bai eta Euskal Herriko Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuak ere, sustatzea nahi dugu, Erakunde publikoak finantziatutako azpiegitura publikoaren eredian oinarrituta egongo da eta jabego publikoa eta alokairuaren bidez inbertsioa itzultzea bideratuko du.

Udala gogotsuago sartu behar da honetan. Horretarako, beste sailen menpean ez dagoen Etxebizitza Saila sortu, oraingo sailaren baliabideak areagotu eta ondoko kompetentzia hauek sartu, egin behar izango du Udalak:

- Auzotarren aholkularitza, hipotekaren bidezko zozpetzearen gaian.
- Etxebizitza kaleratzeko arriskuan dauden auzotarren aholkularitza eta finantza-erakundearen aurrean defentsa-gastuen dirulaguntza.
- Hirigintza-plangintza gauzatzea; edo honekin bateraezina izatea, edo hiri-antolamendu zuzenarekin desadostasuna direla medio kaltetutako eraikinen biztanleak, beste etxe batean sartzeko bermea; edukitza-erregimen mantenduta (alokairua edo jabegoa)
- Etxebizitza hutsen jabeekiko harremanak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuaren bidezko alokairuaren segurtasuna eta zerga-abantailak jakin arazteko.
- Alokairu sozialaren eskatzaileen aholkularitza.

Ingurumena.

Getxon birziklatze-tasa galtzen ari gara. Aurre egiteko, bide desberdinak erabilita (zerga-pizgarriak, pedagogia, zabor-bilketako zerbitzuaren erreforma...) sustatu behar da. Honetan, ekonomia zirkularraren idearen - zero isuriaren helburuaren- atzetik ibili behar da. Errausketaren murrizketa progresiboaren, bostgarren zabor-edukiontzia ezarpenaren eta hondakin solidoen kudeaketaaren eta prebentzioaren programaren apostua egiten dugu.

Getxoztarrok gure herriaren eredu energetikoa erabakitzeko eskubidea defendatzen dugu. Getxoko eraikinen eraginkortasun energetikoan aurrera egin nahi dugu. Era berean, energia berriztagarrien ezarpenaren eta autogestio energetikoaren alde gaude. Amaitzeko, jatorri nuklearreko elektrizitateari uko egiten diogu eta elektrizitatea banatzeko sarearen udalekotzearen bidea zabaltzea proposatzen dugu.

“Euskadin Fracking-ik ez” adierazpenarekin Getxok bat egitea eta hiriguneko gasolindegien lizentziak ez berritzea proposatzen ditugu.

Mugikortasun eta hirigintza iraunkorren ereduaren alde agertzen gara. Hau da, ibilgailu pribatuaren ordean, eragin gutxiko garraio bideen ereduak sustatzen dituenak. Eta era berean, erabilera eta funtzio anitzeko hiri eredu trinkoa eta eraginkorra garatu behar da, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko.

Udalaren kontratazio-agirietan ingurugiro- eta gizarte-irizpideak eranstea sustatuko dugu.

GUK Programa. 2015 /05/04

Getxo, "Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarearen" (Udalsarea21aren) partaidea denez, beste 79 udalerrri moduan, arlo honetako kudeaketa neurtzeko, sareak bultzatzen duen TAK21 sistemaren erabilera exijitzen dugu

Hezkuntza, ezagutza eta bizikidetzatza

Atsegin dugu zinez Getxon pentsatzea hezkuntz komunitatea bailitzan, balibideak hobetu eta partehartzaile guztiak aktibatzen dituen komunitatea, eta udaleko zenbait esperientzian jendea inplikatu, konprometitu eta esperientziok zabaldu egiten dituen komunitatea. Halaber, eskolako ekimenak sustatzen dituen, baita eskolatik kanpokoak direnak, ikasleengan Getxoko historia, ondarea eta ingurugiroa hedatzen laguntzen duten ekimenak lagunduz. Aquariumak paper inportantea eduki behar du arlo honetan, bertoko itsasoko ondarea eta arrainak bere gain hartzen dituelako.

Apostua egiten dugu Getxoko herritarrek duten jakintza eta ondarea biltzearen alde, adinez, estudioz eta bizipenen bidez duten ezagutza batzeko, alegia. Halaber, horietan eta historia eta tradizioa hezkuntz espazioetara heldu behar direla uste dugu belaunaldi berriei helaraziz.

Programak behar ditugu hezkuntzako maila guztietan errespetua eta elkartzasuna sozializatzeko, lankidetzatza, partaidetzatza eta enpatia bultzatuz, diskriminazioaren aurka eginez, sexu, erlijio edo politikagatik egiten diren diskriminazioen aurka. Programa horiei nahikoa baliabide tekniko eta ekonomiko emateko exijitzen dugu. Inbertsio horiek beti tokiko komunitatearen prestazioak itzuli.

Beka programa ona proposatzen dugu, eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko, baita jangela ondo hornitzeko ere.

Gure Euskal Eskola Publikoaren aldeko apostu garbia adierazi dugu. Nahi dugu udalak hezkuntza hobetzen laguntzea, hala nola, eskolatik kanpoko ekintzak, antzerki eskola edo programetako aurrekontua handitu eta eskola-batzordeek egiten dituzten eskaerei erantzutea, Eusko Jaurlaritzaren eskuduntzak edo konpetentziak direla esatea errefuxatuz edo albo batera utziz.

Udan Eskoletako instalazioak irekita egotea planteatzen dugu, era horretan catering zerbitzuak, entretenimenduzko ekintzak eta berreskuratzeak eskaintzeko.

Errepide edo bideak seguruak izateko plana aldarrikatzen dugu, ikasleei laguntzailerik gabe joateko aukera emango dien plana, hain zuzen ere..

Proposatzen dugu Udalak artikulatzea neutraltasun batetik mekanismo batzuk, herriko taldeen arteko gatazkak konpontzen laguntzeko.

Euskera.

Euskara auzuneetan bizirik egon dadin nahi dugu. Laguntza emango dugu gure Udalak irakasle kooperatibak sustatzeko eta finantzatzeko, udalak emaniko tokietan, auzoetan alegia, euskarak espazioak eduki ditzen elkartrukeak egiteko eta elkarbizitzeko.

Egizu ekimenak egiten duen lana mantentzea eta bultzatzea proposatzen dugu euskararen eguneroko erabilera zabaltzearen.

Proposamena dagigu udal euskaltegiaren egoera tamalgarriarekin amaitzeko: ekai edo material desegokiak, irakaskuntz koordinazio eza, baliabide eza, baita gestioak egiteko proposamena egin ere, horrela Eusko Jaurlaritzak bere gain har dezan bere finantziazioa.

Herritarren segurtasuna

Getxoko Polizia lokala hurbileko lantaldea da. Bestalde, segurtasun lantaldea denez gero, indarra erabiltzeko ahalmena duena, gardentasun eta erantzukizun kriterio zehatzen menpe egon behar da. Egun duen egitura eta funtzionamendua planteatu behar dira kudeaketa edo gestio hobea lortzeko, gatazkak konpontzeko gauza izango den zerbitzua sustatuz.

Zigor ekonomikoen ordez, auzolan edo lan komunitarioak sustatzea proposatzen dugu.

Kultura eta Aisia

Kultura, kirola eta aisiaren arloan, Udalaren eta elkarten artean egindako Plan Estrategikoaren proposamena egiten dugu, enfasia kultura amateurrean eta kirol ez-lehiakorrean jarrita. Honen ondorioz, eta Diru-laguntzen Lege Orokorrak jasotzen duen moduan, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa sortuko da.

Kultura eta Aisia kudeatzen dituzten erakundeen arduradunak hautatzeko erabiliko diren irizpideak, berdintasunean, lehian, merituetan eta gaitasunetan oinarrituko dira eta ez, orain egiten den moduan, gobernuko partiduaren hurbiltasunean eta mendetasunean. Arduradunen profila definitzeko arlo horretan diharduten udelerriko kolektiboak kontsultatu behar izango lirarteke.

Turismoa.

-Turismoa- dela eta, oporretako pakete turistikoak kontrolatzen dituzten bidai-agentzia handizkarien lehia izugarrian parte hartzea alferretan dela ikusten dugu. Horren ordez, "turistari" baino "bidaiariari" zuzendutako Turismo Arduratsuen Plana elaboratzea proposatzen dugu. Planaren helburuak ondoko hauek izango dira, besteak beste: baliabideak zaindu/ hondakinak minimizatu/ eragin negatiboak konpentsatzeko neurri aringarriak hartu/ kulturaren folklorizazioa ekidin/ tokiko komunitateentzako diru-sarrerak sortu, eta hauen ondorioz udal ondarea eta ekosistemak mantentzen eta birgaitzen lagundu.

Helburu iraunkorraren garapena laguntzen duen bidaiarien ibilbideetan Getxo kokatu ahal izateko, gazte-aterpetxea sortu. Edo "kanpamendu familiar arduratsua", gure aztarna ekologikoa handitzen duen inertzia kontsumitzailea iraultzeko

Osasuna, kirola, merkataritza eta bizitzaren kalitatea

Udal eredu inklusiboa defendatzen dugu, hirigune seguruagoak eta irisgarriagoak sortzen dituen, batez ere kolektibo kalteberentzat.

GUK Programa. 2015 /05/04

Getxotarren ongizaterako eta osasunerako ezinbesteko elementutzat jotzen dugu kirol amateurra eta honen laguntzaren eta sustapenaren alde agertzen gara.

Dibertsitate funtzionaleko kolektiboen inklusioa eta irisgarritasuna hobetzen dituzten neurrien sorrera eta kirol ekintzen udal-programak proposatzen ditugu.

Edonondik etorritako pertsoneri irekitako hiriaren alde lan egiten dugu. Oinezkoa bizikletaren aurrean defendatzen dugu, eta bizikleta ibilgailuaren aurrean, garraio publikoa, pribatuaren aurrean, berdeguneak asfaltoaren aurrean, merkataritza familiarra kateen aurrean, hurbileko produktua exotikoaren aurrean, merkataritza eta bizitza kulturala duten auzoak bizitegi-auzoen aurrean, ez kutsatu, ez gogaitu egiten ez duten eta udalerrian sakabanatuta dauden negozioak kanpoaldean metatuen aurrean.

Getxo *Slow City* sarean sartzea sustatuko dugu